

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

165/2019 Foru Agindua, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez interes publikokotzat jotzen baita San Bartolome aurkintzan, Guardiako udalerriko 22 poligonoko 147 eta 159 lurzatietan, lurzoru urbanizaezinean, edateko ur biltegi erregulatzailer berria eraikitze proiektua

Arabako Errioxako Ur Partzuergoak obra lizentzia eskatu dio Guardiako Udalari edateko ur biltegi erregulatzailer berria, 5.000 m³-ko edukierakoa, eraikitze Guardia herriko 22 poligonoko 147 eta 159 lurzatietan, San Bartolome aurkintzan. Gaur egun erabiltzen ari den biltegi biribilaren ordean 40 x 28 metro inguruko biltegi berri laukizuzena eta giltza etxola jarri nahi dira gaur egungoaren aldameneko lursailetan, eta han dauden eta erabiltzen ez diren bi ur biltegi zahar eraitsi.

Guardiako Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean dago proiektu tekniko, baita udal arkitektoak eginiko txostena ere, zeinean adierazten baita lurzatiak lurzoru urbanizaezin sailkatutako lursailean daudela, eta lehengoratu beharreko basogintzako babes zona eta akuiferoen babes zona gisa kalifikatuta daudela, udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera.

OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bat etorri Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan ezarritakoarekin, "lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzeko den legeria sektorialak edo lurralde antolamenduak interes publikoko deklaraturako zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak betiere dagokion foru diputatuak ebazpen bidez deklaratu behar baititu interes publikoko, hogeit eguneko jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren".

Maiatzaren 2ko 108/2019 Foru Aginduaren bitartez, hasierako onespina eman zitzaion interes publikoa adierazteko espedienteari eta jendaurrean jarri zen 20 eguneko, ALHAOn argitaratu zenetik hasita. ALHAOn 2019ko maiatzaren 15ean argitaratu zen (56. zk.). Epe horretan ez zen alegaziorik aurkeztu.

Interes publikoa, aztertzen ari den kasuan, azpiegituraren izaeratik dator (edateko ur biltegi erregulatzailer berri bat), haren helburua Toki Araubidearen Oinarrien Legeko 26.1.a artikuluan aurreikusitako zerbitzu bat ematea baita. Xedapen horretan, udalek kasu orotan eman behar dituzten zerbitzuak jasotzen dira, eta horien artean etxerako edateko ur hornikuntza dago.

Instalazioa landa ingurunean kokatzeko beharrari dagokionez, azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da lur horietan.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATU DUT

Lehenengoa. Interes publikokotzat jotzea Arabako Errioxako Ur Partzuergoak sustatutako eta Guardiako Udalak izapidetutako proiektua, honetan datzana: edateko ur biltegi erregulatzailerria, 5000 m³-ko edukierakoa, eraikitzea Guardia herriko 22 poligonoko 147 eta 159 lurzatie-tan, San Bartolome aurkintzan. Hori guztia, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak (Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legea) 28.5.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Deklarazio honek ez du kentzen proiektua gauzatzeko aginduzko udal baimena lortzeko beharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikokoa dela adierazteak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta horrek aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsoa.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 1a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO